

**724/2022 EBAZPENA, irailaren 19koa, Bidasoko ESiko zuzendari gerentearena, Bidasoko ESlan Oftalmologiako Osasun Ataleko burua hautatzeko deialdian onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartzen duena.**

### AURREKARIAK

Bidasoko ESiko zuzendari gerentearen 2022ko uztailaren 6ko 604/2022 Ebazpenaren bidez, Bidasoko ESlan oftalmologiako osasun-ataleko buruaren lanpostu bat lehiaketa-sistemaren bidez betetzeko deialdia argitaratu zen. (EHAA, 149. zk., 2022ko abuztuaren 3koa, eta BOE, 192. zk., 2022ko abuztuaren 11koa)

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko irailarenren 2an amaitu zen.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Bidasoko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertze arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bidasoako ESlan oftalmologiako osasun-ataleko buruaren lanpostua betetzeko deitutako lehiaketan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina).

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Bidasoko ESiko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Hondarribia, 2022ko irailaren 19a

**Osakidetza**  
Bidasoko ESiko zuzendari gerentea,  
**JOSE AGUSTIN AGIRRE ARANBURU**  
BIDASOA  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
BIDASOA

**I. ERANSKINA**

**BIDASOAKO ESiko OFTALMOLOGIAKO OSASUN-ATALEKO BURUAREN  
LANPOSTUA**

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- David Martinez Zabalegui

Baztertuak:

- Inor ez